



**TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO**

hitza



**Asteazkena
2008-01-09**

VI. URTEA 1.331. ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA


WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

PATXI MUÑOA BONBERENEAREN '10 URTE BIZIRIK' LIBURUKO EGILEA

«Urte askoko lana izan da, baina oso pozik gaude emaitza ikusita»

TOLOSA 2007an hamar urte bete zituen Bonbereneak; gaztetxearen unerik berezienak bildu dituzte liburuan

KULTURA «Euskal Herrian Bonbereneak fama handia du, eta kanpoko jendearentzat erreferente da», dio egileak



Villarrealen erakusketako adibide bat, Aranburu jauregian. EEZEIZA

PLANETAREN EDERTASUN URRATUA ARANBURUN IKUSGAI

TOLOSA Javier Villarrealen 'Paralelo 42' argazki montaje erakusketa dago ikusgai hilaren 26ra arte; paisaiaren miaketan sakontzen du 4

AINHOA ORRANTIA KONTSUMO BULEGOKO ARDURADUNA

«Prezioetan ongi fijatzeke eskatu eta aholkatzen diogu jendeari beherapenetan»

GIZARTEA Kontsumoari buruzko aholkuak eta informazioa ematen dute eskualdeko bulegoan €

NEKANE TELLERIA ALDE ZAHARRA DENDAK-EKO KIDEA

«Goxotasuna eta konfidantza eskaintzen diete bezeroei denda txikiek»

GIZARTEA Astelehenean hasi ziren beherapenak, eta Gabonetan bezala, dendak berriro ere bete egingo dira €

Tolosako Kultur Etxean HITZALDIAK

Kontzientziaren iratzarpena

Urtarrilak 10

Zer gara? pertsonak ala makinak...

Nor gara? Kontzientzia, pertsonalitatea, egoa!

Urtarrilak 11

Hitz egin dezagun Chacra izeneko zentro energetikoetaz

Urtarrilak 14

Chacren psikologia ezkutua

Tel.: 688 607 816 - 688 642 923





Zizurkilgo zenbait ikasle izako ikasturtean Eskolako Agenda 21aren inguruko ekimenak eginez. HITZA

Agenda 21ean heziz

Eskualdean 19 ikastetxe daude Eskolako Agenda 21 egitasmoan sartuta. Zuloaga Txiki Ingurumen Eskolatik bideratzen dute partaidetzaren ardatza.

IMANOL GARCIA

Tolosaldeko 11 herritan Eskola Agenda 21a sinatu dute berriki eta martxan jarri dute ikasturte honetan. Tolosako zenbait ikastetxek lau urte daramatzate egitasmoarekin eta Zizurkilgo San Millan eskolan eta Pedro Mari Otaño eskolan aurreko ikasturtean hasi ziren. Guztira eskualdean 19 ikastetxe daude Eskola Agenda 21 proiektuan murgilduta.

Proiektu horrek hiru ardatz ditu: eskola ingurunearen kudeaketa jasangarria, curriculumaren berrikuntza eta komunitatearen parte-hartzea. Azken atal honetaz arduratzen da Zuloaga Txiki Ingurumen Eskola. Zuloaga Txikitik antolatuta zuten konpromisoen sinaketa. Ikastetxeek, udalek, mankomunitateek, Hezkuntza Sailak eta Ingurumen Sailak sinatu dituzte.

Agenda 21a barneratzea

Oihana Orkolaga Zuloaga Txiki kideak azaltzen duenez, «haurrek eta gazteek ez dute aukera asko bere iritzia eman eta bere proposamenak emateko» eta hori lantzea da partaidetzaren ardatzaren helburuetako bat. «Sinaduren ekitaldietan alkate batzuek azaldu dute helduok dena dakigula, baina haurrengatik ideia onak jasotzen direla». Bestalde, ingurumena

«denon artean hobetzea» da ere nahia. «Ez bakarrik eskolako, herriri guztiarena ere bai». Helburu orokorra haurrek Agenda 21a «barneratzea» da. «Ez da zerbaitez buruz ikastea, baizik jasangarritasunaren inguruan ohitura batzuk hartzea».

Udalek ematen dute pausoa Agenda 21 egitasmoan sartzeko. Eskolako Agenda 21ari dagokionez, normalean udalek eskolei egiten diete gonbitea proiektuan sartzeko. Baina eskola guztiek ez dute baietzkoa ematen. «Askotan

proiektu asko dituzte esku artean eta denborik ez dutela diote», azaltzen du Orkolagak. Esan bezala, egun 19 ikastetxe daude Eskola Agenda 21 egitasmoan parte hartzen.

Hondakinak

Parte-hartzearen ardatzari dagokionez konpromisoen sinadura izan da egin duten lehenengo pausoa. Eskolek, baina, beste pausobatzuk ere egin dituzte: sentsibilizazio lanak, ikastetxeko ikasleei, irakasleei eta langileei proiektua

azaltzea, txoko berdea jartzea... Nolabait orain arte proiektuan murgiltzen aritu dira.

Aurtengo ikasturtean lantzen ari diren gaia hondakinak dira. Tolosan denboragehiago daramatzate eta han beste gai batzuk ere jorratu dituzte. Aurtengoan, azken lau urteetan egindakoari errepa-soa ematen dihardute, ikusteko beraiek egindako proposamenak txertatzen ari diren eta beraiek hartutako konpromisoak betetzen ari diren. Zizurkilgo bi ikastetxe publikoetan hondakinaren gaia jorratu zuten iaz eta aurtengoan berriz ere hondakinak landuko dituzte beste eskolekin batera joateko, baina horrez gain beste gai batzuk ere jorratuko dituzte, tartean urarena.

Sinadura ekitaldiaren ondoren, eta hondakinaren gaia ardatz hartu-

ta, ikasleek eskolen eta herrien azterketa egingo dute. Horretarako Zuloaga Txiki Ingurumen Eskolatik materiala bideratzen dute.

Azterketa egiterakoan hainbat gauza izango dituzte kontuan: edukiontzia, ibaiak, hamaiketakoa egiterakoan sortzen diren hondakinak... Haur Hezkuntzako ikasleekin Gabonak eta kontsumoa gaia jorratu dute eta hondakinak nola banatu behar diren. Bestalde inkestak egingo dituzte bai etxeetan eta bai kalean, eta iteerak antolatuta dituzte ere zabortegetara, hondakinak kudeatzeko zentroetara...

Ikasleek azterketa egiten ondoren, horren ondorioak eta proposamenak heleraziko dizkiote Udaltzari. Udaltzatik sinatutako konpromisoen arabera, proposamen horiek aintzat hartuko dituzte eta ahal den heinean aurrera eramaten ere bai.

Oihana Orkolaga azaltzen duenez, «Tolosaren kasuan orain ikusten ari dira azterketaren ondoren Udalak hartu dituen konpromisoak betetzen ari diren. Eta Udalaz gain, eskolak berak eta ikasleek hartutako konpromisoak ere betetzen ari diren». Orkolagak gaineratzen du kontua ez dela bakarrik «ikasleek konpromisoak eskatzea, baita beraiek hartutakoak betetzea ere».

Prozesu guzti honetan kezketakoa bat izan ohi da eskolaren barruan jasotzen dena gero etxeetan jarraipenik baduen ikustea. Ez da bakarrik Agenda 21ari lotutako afera. Horregatik eskolan garatzen diren gaietan gurasoak ere inplikatu «oso garrantzitsua» dela azaltzen du Orkolagak.

Eragileen konpromisoak

ERREDAKZIOA

Eskolako Agenda 21a garatzeko, eragile ezberdinek hartu dituzten konpromisoak:

Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailak, CEIDA/IIHIIen bidez, aholkularitza didaktikoa, parte hartzen duten irakasleen prestakuntza eta ikasmaterialen eskaintza ziurtatuko ditu. Diru laguntzak eskainiko ditu ikastetxentzako urteroko deialdien bitartez eta udalekin edo mankomunitateekin sinatu beharreko hitzarmen bidez.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak Garapen Jasanga-

rrirako Hezkuntza lehenatasunezko programatzat tratatzea bermatuko du. Horretarako, irakasleen lanean esparrua eta ordutegia Eskola Agenda 21 programaren koordinazio- eta berrikuntza-eskizunetara egokitzeko bidea emango du.

Udalek eta mankomunitateek Tokiko Agenda 21 programaren zatitza hartuko dute Eskola Agenda 21. Eskolako partaidetza-foro bat ezarri eta sustatuko dute, udalerriko ingurumena aztertze eta ikastetxeren proposamenak jasotzeko. Proposamenei erantzun dieten eta kanpoko aholkularitza

edo laguntza-entresa baten bitartez ikastetxeei lagunduko diete.

Ikastetxeek Eskola Agenda 21 programaren proiektua lantzeko eta, curriculum- eta hezkuntza-proiektuetan barne hartuta, haren filosofia eta metodologiari jarraituz abiarazteko konpromisoa hartuko dute.

Ikastetxeko ingurumen-bartordeak eratu eta proiektuaren arduradunak izendatuko dituzte. Garapen-prozesua bultzatu eta lortutako emaitzak ebaluatuko dituzte. Gainera, urteko emaitzak eskola- eta udal-elkarteari jakinaraziko dizkiote.

E Elkarrizketa

PATXI MUÑOA › '10 urte bizirik' liburuaren egilea

Kultura »

Bonberenearen hamargarren urteurrena dela eta, Patxi Muñoak gaztetxearen berezienak bildu ditu '10 urte bizirik' liburuan

HARRIET BELLOSO

Bonbereneak hamar urte bete ditu dagoeneko. Urte hauetan herriko gazte, eta ez hain gazte direnentzat sinbolo bat bilakatu da. Egun, Euskal Herriko gaztetxerik ezagunetarikoa da eta bere eszenatokitik Berri Txarrak, Anestesia, Soziedad Alkoholika edo Standstill bezalako talde ospetsuak pasa dira. Hamargarren urtemuga dela eta, Patxi Muñoak (Tolosa, 1976) Bonbereneako momentu eta bizipen garrantzitsuenak bildu nahi izan ditu *Hamar urte bizirik* izeneko liburuan. Gaztetxean bertan elkar-tu, eta liburuari buruz, Tolosako kulturaren egoerari buruz, eta batez ere, musikari buruz aritu dasolasean.

Nola sortu zen liburuaren egiteko ideia?

Betidunik buruan izan dudana proiektua izan da. Motibazio personal batek bultzatu nau liburu hau egitera, eta hainbeste urte eta gero, ez da erraza izan esperientzia guztiak azaltzea. Lehen etxea okupatu genuenetik kontzertu eta ekitaldi guztiak datuak, kartelak eta argazkiak biltzen joan naiz. Testuei eta kontatzeko erari garrantzi handia eman nahi nion, irakurleek Bonberenearen historia eta ibilbidea ondo ezagutu dezaten. Urte askoko lana izan da, baina amaierako emaitzarekin oso pozik gaude.

Zenbat jende dago proiektu honen atzean?

Sei pertsona egon dira liburuaren lanean. Urte asko egon gara elkarlanean eta oso ondo ezagutzen dugu elkar. Nik kronologiak eta materia biltzeaz arduratu naiz. Webgunea uste genuena baino garrantzitsuagoa izan da. Bertan kontzertuetako eta ekitaldietako argazkiak eta datuak daude gorde-ta eta lana egiteko orduan oso baliagarria izan da.

Oroitza berezi asko etorriko zitzaizkizuen burura, ezta?

Urte hauetan gertatu diren momentu guztiak gogoratzea berezia izan da denontzat. Une txarrak eta onak egon dira, baina azkenean bietatik ikasten amaitzen duzu. Bere garaian okupazioa bide bakarra zela uste genuen, eta horregatik kriminal zikinak ginelaste zuten herriko alderdi politikoei. 2002 eta 2003 urteak garrantzitsuak izan ziren baita ere. Etxearen egituraren aldaketa asko egin ziren eta jende berria sartu zen zuzendaritzan. Belaunaldi berriak



HARRIET BELLOSO

«Urte askoko lana izan da, baina oso pozik gaude emaitzarekin»

lanerako gogo handiarekin etorri ziren, eta beraien esker atara dugu proiektu hau aurrera.

Aipatu duzun bezala hastapenak oso gogorak izan ziren. Amore emateko asmorik izan al zenu-ten?

1998. urtean amore emateko gertu ibili ginen. Hiru okupazio eta zenbait lagun atxilotu ondoren adorea lurretik genuen. Baina kontzertuetara joaten ginenak eta musika sentitzen genuenok leku berriak bilatu genituen ekitaldiak antolatzeko jarraitzeko. Kalean eta Kultur Etxean kontzertuak eratzen hasi

ginen. 1999ko Udal aldaketarekin lokal bat izateko ilusioa berreskuratu genuen. Biltzeko leku bat behar genuela argi genuen eta azkenean gaur egun dugun eraikina okupatu genuen.

Hasierako jendea mantendu egin da edo aurpegi berriak etorri dira?

Garai bateko jendea urte askotan egon da lanean, baina normala den bezala joan-etorriak egon dira. Nere uestez orain dagoen taldea izugarria da eta gure artean primeran konpontzen gara. Egungo gazteak guztiz desberdinak

dira, ideia eta pentsamolde berriak dituzte. Guk ez genituen baloreak eta printzipio politikoak dituzte. Etxea berreraikitzen lagundu zuten eta gaztetxearen izena hedatu dute. Beraietzako etxe bat dela esan daiteke.

Kontzertuak, hitzaldiak, antzezlanak... Bonberenea kulturaren erreferentzia bihurtu al da?

Autogestioan oinarritzen diren elkarte eta taldeentzako bai. Azken hiru edo lau urteetan oso nabaria izan da gainera. Euskal Herriko gaztetxe askotatik etorri izan dira gure etxea eta funtzionamendu

modua ezagutzera. Bisita horietan puntu honetara nola iritsi daitekeen galdetzen digute beti. Urte hauen zehar gaztetxeetan lan egiteko moduak eta ikuspegia aldatu nahi izan dugu. Gaztetxeetan ikusten ez ziren ekintzak egiten hasi ginen eta jendea oso harrিতa geratu da. Gure alde ezagunena musikarena da, baina futbol txapelketak, hitzaldiak, sukaldaritza ikastaroak eta abar antolatuta ditugu ere. Beraz, erreferentzia bihurtu gara-le onartu beharra dago.

Sukaldea, grabaketa estudioa, futbol zelaia... Bonberenean zer-bait falta dela uste duzu?

Gauza materialak baino, beste zer-bait botatzen dut faltan: herriaren eraketa. Hasiera batean filmeko pertsonaia gaiztoak ginen, baina denborarekin herriaren errespetu irabazten joangara. Euskal Herriari Bonbereneak fama handia du, eta kanpoko jendearentzat erreferente bihurtu da, baina Tolosaldean tamalez ez da hori gertatu. Egitura ailetik oso pozik gaude eta etxea orain dagoen bezala mantendu nahi dugu.

Tolosan dagoen kultur proposamena egokia iruditzen zaizue? Gazteentzako gauza interesgarriak antolatzen al dira?

Bonberenea sortu zenetik udal-txetetik proposamen kulturala asko aldatu da. Arriskutsua izan daiteke hau esatea, baina gaztetxearen eragina nabaria izan dela iruditzen zait. Euskal Herriko leku askotan oso ezagunak gara eta normalean gazte ugari etortzen dira asteburuetan. Hori dela eta, herriaren gauzak antolatzeko garaian eredu bihurtu gara.

Tolosako kafe antzokia, beharrezkoa al da?

Kafeantzoki berri horrek eskainiko lukeena duela urte asko ari gara gu eskaintzen. Horrelako leku batekin Tolosako tabernen eta lokalen arteko lehia areago egingo litzateke, eta hori herriarentzat kaltegarria izango litzateke.

Hamar urte hauetan musika talde asko pasa dira Bonbereneako eszenatokitik. Zein izan da gehien gustatu zaizun taldea? eta gutxi-entzen?

Bonberenean maila handiko kontzertuak ikusteko aukera izan dugu. Kuraia, Lisabö, Anestesia, Dut, Deabruak Teilatuetan, Ari... ezin dut talde bakarra aukeratu. Manta Ray eta Monochromen kontzertuak aparteak izan ziren ere. Oraingo ez dut dezeptuorik izan, gaztetxeako kontzertuen maila ona den seinala.

'10 urte bizirik' da liburu honen izenburua. '20 urte bizirik' liburuan ze irakurtzea gustatuko litzazuke?

Oraindik asko falta da une horretarako, baina liburu hori argitaratzen bada asko pozituko nintzateke. Gauzak orain bezain ondo eta ilusioz egiten jarraitzen badugu bizirik mantenduko gara.

Laburrak

'40 emozio urte' jaialdiko DVDa salgai dago jada

ASIA ● Berrogei emozio urte bezala izendatu zuen Tolosako Laskorain ikastolak bere 40. urteurrena ospatzeko abenduaren 1ean herriko Usabal kiroldegian antolatu zuen jaialdi nagusia, eta emozioa izan zen bertaratu zirenek ordu eta erdi luzez bizi izan zuten sentipen nagusia. Orain, Ikastolak jaialdi arrakastatsuen DVDa argitaratu berri du eta ikastolako idazkaritzetan, Sakramentinoetan eta Laskorainen eskuratu daiteke.

'Un verano con Monica' ikusgai zine-forumean

TOLOSA ● Bihar, zine-forumean Ingrid Bergman zuzendariaren *Un verano con Monica* filma izango da ikusgai Leidor antzokian. Emanaldiak ohiko orduetan izango dira. Lehendabizikoa 19:15ean hasiko da, eta bigarrena 21:45ean. Bestalde, asteburuan beste bi film ezberdin ikusteko aukera izango da. Alde batetik, helduei zuzendutako saioetan, *Soy leyenda* lana izango da ikusgai. Haurrentzako saioan berri, *Alvin y las ardillas* filma eskainiko dute Leidor antzokian.

Telefonoak Larrialdiak. ((112))

OSASUNA.

Alegialdea. Osasun z.: 943 653212

Anoeta-Alkiza-Hernalde.

Medikua: 943 65 23 39

Asteasu. Medikua: 943 692423

Baliarrain. Medikua: 943 889003

Berastegi-Elduain.

Medikua: 943 683361

Bidegoian. Medikua: 943 681134

Ibarraldea. Osasun etxea: 943 672411

Ikaztegieta. Medikua: 943 653329

Irura. Osasun zentroa: 943 690720

Leitza. Osasun z.: 948 510800

Orendain. Medikua: 943 655595

Orexa. Medikua: 943 682228

Tolosa.

Anbulatorioa, larriald: 943 461111

San Esteban: 943 006800

Gernikako arbola: 943 006900

Amarozko dispen: 943 672637

Asuncion klinika: 943 675799 -

943 67 53 90 (larrialdiak)

DYA: 943 672536

Gurutze Gorria: 943 674888

Villabona. Anbulat.: 943 006970

Zizurkil. Aiztondo zerb: 943 693930

GARRAIOAK.

Renfe: 902 24 02 02

Donostiako autobusa: 943 361740

Tolosalde bus: 943 650621

Leitzarar autob. 948 221015

Taxia: 943 670420

Taxia (Leitza): 608 873016

BESTERIK.


Ertzaintza: 943 538820

Tolosa-Udaltzaingoa: 943 675858

Tolargi: 943 650016

Iurramendi egoitza: 943 670325

Tolosa gasa: 943 675320



Paisaiaren miaketan

Erakusketa » Javier Villarrealen 'Paralelo 42' argazki montaje erakusketa ikusgai da hilaren 26ra bitarte, Aranburu Jauregian

ERREDAKZIOA

Javier Villarreal EHUko Arte Ederren Fakultateko irakaslearen *Paralelo 42* argazki montaje erakusketa ikusgai da Aranburu Jauregian.

Villarrealak egin duen obra honetan, paisaiaren miaketan sakontzen du. Honetarako teknika hibridoak erabiltzen ditu. Azken obra honetan bat egiten du, banaka egin duen azken erakusketaren ildo-


bilatzen segitzen zuen. Munduaren ilustrazio gisara, nahiz eta bilaketa horretan edertasun hori lantzen zuten muga tekniko, formal eta ideologikoekin talka egin. Hori dela eta, *Paralelo 42* lanean paisaia hibridoaren gaineko miaketaren bilakaerak generikoki Google (Earth) Art dei genezakeenera eraman du artista.

Orain Google Earth-etik lortutako espazio funtsean zenitala iturrietako bat da, artistaren irudiatarako. Lehengai hori, baina, maneiatu egiten du egileak, goitik behera maneiatu ere. Elkaren ondoan jarri, fusionatu edo moldatu, betiere tratamendu hibridoarekin

bat eginik, collage digital harrigarriak lortu arte.

Bere azterketaren koherentziak hibridoaren manierismoak daukan tentazio komertziala saihestera behartzen du, eta agertoki irekiera jotzera, non eskala globalaz aldatzea baitakarkio, hala fisikoki nola kontzeptualki.

Aurreko lanetako kamera digitaalaren begirada hurbila handitu egiten da *Paralelo 42* obran. Oraingo honetan, paisaia hibridoaren pusketen atzean globaltasun geometriko, kultural eta geopolitikoaren zeinua ernaltzen da. Planetaren edertasun urratuari buruzko diskurtso kritiko gisara.



Negua luzea izan arren, alde zaharreko katuak maiz ikus daitezke kalean, eta eguzki printzak hagitz ederki aprobetxatzen dituzte goxo-goxo lozorroan egoteko. N. GARZIA

HERRIKO BIHOTZEAN LO

Leitza » Gaur egun ere alde zaharreko zenbait etxe hutsik egon arren, katuak han eta hemen ikus daitezke, lozorroan, herriko bihotzean

NAIARA GARZIA

Heria asko aldatu da azken urteetan, etxe berriak eta industriagunea direla medio, baina alde zaharrik ia bere osotasunean garai bateko xarma mantentzen du, harrizko etxe eta harrizko hormekin. Hauetan natura bakean bizi dela begibistakoa da, eta esaterako, goroldioa, urteak joan urteak etorri, txoko honetako hormetan hazten doala. Eta bertan, herriko biho-

tzean, hainbat herritarrekin batera katuak bizi dira, hagitz lasai, egonean, lozorroan, herriko erritmotik urrun.

Asko dira alde zaharreko etxeak dituzten katuak (garai batean baino gutxiago izan arren), baina bada bereziki katuak gustuko duten txoko bat: Gazpillo. Bertan, egun gehienetan, katu koadrila elkartzen da, denak ez dira, ordea, bertakoak. Maria Rosario Lazka-

no Gazpillon bizi da. «Gazpilloko Maria Angelarenak dira gehienak. 4 katu ditu. Orain bera zahar-etxe batean dago eta guk zaintzen ditugu. Konposta ematen diegu jaten, baita haragitetik ekarritako zerbaite ere».

Arratoiak kentzeko proposak

Gazpillo ondoko Gaztelunea etxe-ko Santiago Erasok ere katuak ederki ezagutzen ditu. «Libre uzten ditugu, katu lotuta izatea zaila baita, nahi dutenean sartu eta ateratzen dira». Erasok azaldu duenez, beti izan dituzte katuak etxean, baita inguruan ere. «Gaur egun 3 katu ditugu, Brandi, Lapurre eta

Silvia. Beste bat ere banuen baina duela urtebete pozoiarekin hil zidaten. Duela urte asko ere katu asko garbitzen zituzten horrela». Etxe handia da Gaztelunea eta beste etxe askotan bezalaxe, arratoiak ere hagitz lasai ibili ohi ziren. «Horrexegatik jarri genituen katuak, pozoia jarrita ere ez baikenuen asmatzen. Orain, berri, katuak beti eskuetan ibiltzen ditut, eta hots eginez gero hurbildu egiten dira».

Katuak, duela zenbait urte

Gaur egun katuak ikus daitezkeen arren, garai batean alde zaharrean gehiago izaten ziren, denborare-

kin zenbait etxe hutsik gelditu baitira. Kristobal Rekondo eta Karmen Zabaleta hil ziren, eta haien etxea hutsik gelditu dela adierazi du ondoko Txonkonea etxean bizi den ilobak. «Tarteka alaba etortzen da, baina orain ez dago katurik. Garai batean, berri, katu asko ibiltzen ziren atarian, baita etxe honetan ere, ni bertara bizitzera etorri baino lehen».

Eguzki printzak goxatuz

Negualuzeaizan ohi da herrian eta Gazpillo txoko hezea izan arren, eguerdi aldera euririk ari ez badu behintzat, bertara biltzen diren katuak edozein eguzki printza aprobetxatzen dute goxo-goxo lozorroan egoteko, herriko erritmotik urrun, denboraren eta egunen joan-etorrien inolako zantzurik gabe, herriko bihotzean, lo.

Hilberriak

JUAN BAUTISTA ALDASORO BEGIRISTAIN (Txibo)

Atzo hil zen, 54 urte zituela.
-Goianbego-

Bere emaztea: Lourdes Martinez; anai-arrebak: Marian eta Angelo, Maixabel, Arantxa eta Mikel eta Mila; ilobak, eta gainerako ahaideak.

Helbidea: Bertsolari Xalbador, 12
OHARRA: Gorpu beila Errekaldeko Tanatorioan dago. Gaur, urtarrilak 9, arratsaldeko 19:30ean tanatorioan bertan, familia eta lagun arteko azken agurra egingo zaio.



DONOSTIA
2008ko urtarrilaren 9a

MILAGROS AUZMENDI ODRIÓZOLA

Urak dakarrena urak daroa, zuk emandakoa gurekin gelditzen da.

Alkartasuna Lizeoa Herri Ikastolako lankide ohiak, gurasoak eta ikasleak



BEASAIN
2008ko urtarrilaren 9a



MANUEL CALVO ZAPATA

Zure eskuzabaltasuna eskertuz, zugan gure oroimena.

Ordiziako Ezker Abertzalea eta Etxerat



ORDIZIA
2008ko urtarrilaren 9a

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

hilberriak-urteurrenak-eskertzak

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel. 943-65 56 95

IÑAKI ITURRALDE MANTEROLA

Beti gogoan izango zaitugu

Zure senideak



ORIO
2008ko urtarrilaren 9a

IÑAKI ITURRALDE MANTEROLA

Beti izango zaitugu inoiz baino bertango gure bihotz txokoa gure lagun, gure babesle

Zure betiko lagunak



ORIO
2008ko urtarrilaren 9a

Eguberriak amaitu dira. Opariak, janaria, edaria,... Urtarrila iritsi da eta merkealdi garaia hasi da. Lehengo prezioa, oraingo prezioa, euroak eta euroak. Urte amaierak eta urte hasierak kontsumoaren inguruan egiten dute dantza. Erosleek eta saltzaileak berriro ere elkar egingo dute topo egun hauetan. Gastua eta beharra aurrez-aurre.

«Beharpenetan prezioetan ongi fijatzeke eskatzen eta aholkatzen diogu jendeari»

AINHOA ORRANTIA Kontsumo bulegoko arduraduna

Erosleak Kontsumorako aholkua eta informazioa telefonoz eta helbide elektronikoz lor daiteke eskualdean.

ASIER IMAZ

Tolosaldeko herrietan, kontsumoaren inguruko informazioa eskaintzen lan egiten du Ainhoa Orrantia (Tolosa, 1973). Iragan ditugun egunak eta aurrean ditugun beharpenak kontuan hartuta, ziur hemendik aurrera lan ugari izango duela.

Zer egiten duzue Kontsumitzaileen Bulegoan?

Kontsumitzailea eta erabiltzailea aholkatu eta informatzen dugu. Horretaz gain, erreklamazioetan bitartekaritza lanak ere egiten ditugu. Lehenik eta behin hitz egin ez saiatzen gara erreklamazioa



ASIER IMAZ

konpontzen, baina ezinezkoa dela ikusten badugu, espedientea Eusko Jaurlaritzara zuzentzen dugu eta bertan erabakitzen dute ze isun jarri, beti ere jarri behar dela erabakitzen baldin badute. **Eguberrietan erosketak ugari egin ohi dira. Data hauetan lan handia izan al duzue?**

Orain artean lasai joan dira. Nire ustez hemendik aurrera iritsiko dira arazoak, opariak itzultzeko garaian adibidez.

Orain berriz merkealdi garaian aurkitzen gara. Zein aholku luzatzen diozue erosleari?

Jendeari prezioetan ongi fijatzeke eskatu eta aholkatzen diogu. Hau

garrantzitsua da, izan ere, saltzaileak lehengo prezioak eta oraingorak tiket berean argi azaldu behar ditu. Biak agertu behar dira produktuetan. Artikuluek tara edo defektuaren bat ote duten aztertu egin behar da erosi aurretik. Kasu honetan horrela bada, ez dute aldatzeko arazorik izango baina ongi fijatu behar da. Ahal dela gainera, etxera eman aurretik dendan bertan oharretza da hobereena. Erosketak txartela ongi begiratzea ere eskatuko nuke, produktua behin erosi ondoren itzuli daitekeen edo ez bertan agertzen den informazioan jartzen baitu. Berez legeak ez du komertzioa inondik ere behartzen itzulketa onartzera edo aldatzea egitera, horretarako nonbait idatzia eduki beharra dauka komertzioak, txartelen batean edo. Beti ere produktuak defekturik ez baldin badu, kasu honetan legeak babesten baitu.

Eguberriak erosketak garaia izaten dira. Orain amaitu ostean beharpenak. Berriz ere erosketak garaia beraz.

Garai kontsumista da bai. Lehenik opariak eguberrietan eta gero beharpenak. Egia da egun hauetan dena elkartzen dela eta ondorioz, nere ustez bakoitza bere erosketak mugarekin kontuan hartzea oso garrantzitsua da. Gure kontsumo mugetatik gora ez erostea aholkatzen dugu, behar dena bakarrik erostea hain zuzen ere. Bartzutan erosteagatik erosten da eta gero erabiltzen ez diren artikuluak hor edukitzen ditugu armario edo txoko batean utzita. Benetan erosteko beharra baldin baduzu, orain erostea baina ez gero armarioan edukitzeko bakarrik.

Zer eskatzen diozue saltzaileari egun hauetan?

Saltzaileari saltzeko garaian argia izan dadila eskatzen diogu. Informazio guztia argi jar dezala tikteten bidez edo iragarki eta kartelen bidez. Nire ustez arazoak ekiditeko biderik hobereena hori da.

Zuekin harremanetan jarri nahi duenak zer egin behar du?

Telefonoz 904 20 12 02 zembakira deitu behar du edo bestela kontsumoa@tolosaldea.net-era idatzi.

«Denda txikiak nire ustez goxotasuna eta konfidantza eskaintzen diete berezoei»

NEKANE TELLERIA Alde Zaharra Dendak merkatarik elkarteko kidea

Saltzaileak Beharpenak astelehenean hasi ziren legearen arabera. Gabonetan bezala, denda txikiak berriro beteko dira.

Alde Zaharra Dendak merkatarik elkarteko kidea da Nekane Telleria (Tolosa, 1962). Egun hauetan gogor ari da lanean, beharpenak hasiak baitira.

Zein da elkartearen funtzionamendua?

Tolosako Alde Zaharreko elkarte bat da eta astelehenero bilerak egiten ditugu. Elkarrekin Alde Zaharra pixka bat piztu nahi dugu, aurrera ateratzeko. Eguberrietako apaingarriak jartzen ditugu, jaientan ere parte hartzen dugu, finean Tolosako dendari bezala Alde Zaharra piztu nahi dugu.

Merkealdi garaian, elkarrekin erabakitzen dituzue beharpenak?

Ez. Beharpenetan bakoitza gehienbat bere aldetik joaten da. **Nolako da garai hau zuentzat?** Puntu polita da salmentei dagokienaz. Aurrera egiteko ona da.

Gabonak eta beharpenak. Bata bestearen atzetik.

Gabonak ere ondo daude bai. Baina irautea ere zaila da. Beharpenak ez ditugu denok garai berean jartzen eta horrek ez du laguntzen. Bakoitzak nahi dituen jartzen ditu eta gai honetan ez gaude elkartuta. Batera egotea izango litzateke politena, merkealdi garaierkin batera hasia baina oraindik ez dugu hori lortu. Legearen arabera hilaren 7an hasten dira beharpenak baina ez da beti horrela izaten. **Erosleari zer eskaintzen diozue orain. Betiko produktua edo garai honetarako erosten duzue?**

Denboraldian erosi duguna eta gelditu dena jartzen dugu merkealdi garaian. Guk ez dugu beharpenetan erosten gero erosleari eskaintzeko. Hori erraz ikusten du

@ Eztabaidak. Azken hilabeteotan hainbat lapurreta egin dituzte Tolosaldean: Alegian, Orendainen, Iruran azken asteetan... Dirudienaz, lapurrek badakite non sartu eta nola. Zerbait egin daiteke hau ekiditeko? Zer bilatzen dute? Eman zure iritzia gure web orrian: www.tolosaldekohitza.info



ASIER IMAZ

etortzen denak, denboraldi hasieran aurkitzen zena egoten dela merkeago.

Lehen eta oraingo prezioak jartzen al dituzue txartelekin?

Hori errespetatzen dugu bai. Erosleak nahi badu argi ikus lezake lehen zein prezioetan zegoen eta orain nola dagoen.

Itzulerak edo aldatetak onartzen al dituzue merkealdi garaian?

Nire kasuan ez dago arazorik. Nahiago dut zerbait ongi ez baldin bazaio geratzen erosleari itzuli eta aldatzea. Publizitate aldetik ere nahiago dut nire produktua kalean egotea armario batean baino.

Merkeago saldua ez al zarete gaitzen ateratzen?

Bai noski. Baina gauzak ateratzeko eta berriei lekua egiteko aukera ere ematen dizu. Udaberria gainean daukagu eta berriro beharra dago. **Denda txikiak edo handiak. Betikogaldera.**

Txikiak nire ustez goxotasuna eta konfidantza eskaintzen dute. Erosleak ere gure aholkuekin kontaktatu du, gure errespetuarekin.

Iragarki laburrak

SALGAI

■ **Autoa.** Volkswagen Passat. 2004. 1.900.TDI. 130 zaldi. 620 72 76 91.

■ **Rodiloa.** Txirriinduentzako rodiloa saltzen da. 699 60 91 40.



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Laburrak

Egoera politikoari buruz gaur, Subegi elkartearen

IBARRA ● Ibarrako Subegi Kultur elkartearen gaur 19:30ean, Ibarrako ezker abertzaleak deituta. Bertan egoera politikoaren irakurketa, erantzun dinamika «pairatzen ari garen errepresio bortitzaren aurrean» (EAE-ANVren ilegalizazioa) eta lan banaketaz ariko dira. Deialdia irekia da.

Bertso eskolan izena eman dutenentzat bilera bihar

AMEZKETA ● Amezketa bertso eskola osatzeko aukera zabaldu zuten joan den hilabetearen, eta dagoeneko talde bat osatu da. Bertso eskolan hasi nahi duten guztientzat (izena eman dutenak, nahiz interesa duten guztiak) bilera izango da bihar, balioantzeko gelan, 19:30ean. Bilera ordutegiak eta taldeak finkatzeko izango da. Ahal duenak azal dadila eskatu dute antolatzaileek.

Festetako lehenengo bilera izango da Kultur Etxean

ALBIZTUR ● Etzi Albizturko Kultur Etxean festetako bilera egingo dute, Festa Batzordeak deituta. Datorren Andre Maria festez (abuztuaren erdialdean) hitz egingo dute eta antolakuntzaz ere ariko dira bertan. 19:30ean izango da eta irekia da, interesa duten herritar guztientzat, alegia.

Saharara produktua bidaltzeko kanpaina

VILLABONA ● Tolosaldea Sahararekin elkarteak Saharara produktua bidaltzeko kanpaina jartzen du urtero martxan, herri gehienetan. Villabonako kasuan, bertako udalarekin 08:00etatik 14:00etara bitartean, edo Villabonako Eroskin ere utz daiteke bidali nahi dena: aurten, hegala, arroza, konpresak, azukrea edota dilistak bidaliko dituzte. Bidaltzekoak uzteko azken eguna hilaren 18 da.



Euskal Jaia izan da ekitaldirik arrakastatsuenetakoa Ikaztegietan. Irudian, txistorra erretzen. A. IMAZ

Udazken Kulturalean Euskal Jaia, ibilaldia eta Olentzero izan dira arrakastatsuenak

Ikaztegieta ● Hilabete eta erdi ekitaldiz josita egon da herria, kulturari lotuta eta lehen urte honen balantzea «ona» izan da.

NEREA URBIZU

Ikaztegieta Udazken Kulturalea bukatuta, komisiokoei bilera ofizialik egin ez badute ere, haien artean hitz egin dute, baina kanpoan hitz egingoaren arabera orokorrean balantzea «positiboa» da, eta aziparrak, berriz, Euskal Jaia. «Herritarren inplikazioa, parte-hartzea handia izan da eta errepikatzen modukoa», Helena Larrañaga kultur zinegotziak gogoratu bezala. «Kanpokoek ere goratu zuten feria».

Olentzeroren etorrera ere arrakastatsua izan zen. «76 haurrek jaso zuten oparia, jende asko bildu zen, ekitaldia arina izan zen, erritmo onean». Herri mugetako ibilaldia ere «oso ondo» joan zen: «Honetan 60 lagun bildu ginen. Hori jende asko da Ikaztegieta».

Bere iritziz, «ondorio negatibo gisa-edo», Larrañagak zera adierazi zuen: «Luzeegia egin da. Asmoa zen herritarren kezka kentzea, hau da; lehenago astebetean dena egiten genuen Kultur Astea, eta parte-hartzea eskasa izaten zen. Hori ikusita, hobe beharrez, ekitaldiak asteburuetan jartzea erabaki genuen. Nire ustez, gehiegi bete da». Larrañagak esan bezala, «ez jakintasuna izan da». Beraz, datorren Kultur Asteari begira gai hau jorratuko dute.

Kalitate gogoan hartuta

Kalitateari dagokionez, Helena Larrañagak Aitor Furundarena eta garikoitz Mendizabalena saioa gogoratu du: «Oso jende gutxi joan ginen, baina kalitate oneko kontzertua eskaini zuten, maila altuko. Kostako da halako zer edo zer berriz herrira ekartzea».

Txintxarri Abesbatza ere «ondo aritu zen eta jendea elizan batu zen. Antzerkiei dagokionez, nahiko jendetsuak izan ziren».

Ardo dastaketa ikastaroa

Ardo dastaketa ikastaroan 20 lagun izan ziren, eta kanpoko jendea ere animatu zen. «Ez zen masiboa izan, baina hori ez zen helburua, eta egon zirenak gustura atera ziren bertatik». Zozketak egin zituzten ondoren.



Intxurrekoak Shanti Torneoan

ALEGIA ● Alegiko Intxurre areto futboleko jokariak aritu dira Shanti Txapelketan eta infantiletako mutilek (A taldea) finala Berrobikoei irabazi zien 2-1. Atezainak gol bat sartu zuen, alderik alde, eta bestea, berriz, penaltiz sartu zuten. Partida galtzen hasi ziren eta partida «oso gogorra» izan zela adierazi zuten bertan egon zirenek. Neska infantilek berriz, hirugarren egun zuten hiru partida irabazi eta bi galdu ondoren. Alebinak eta benjaminak ere aritu ziren jolasten. Hauen atzetik, eta prestatzen Esther Videra eta Xabat Renobales aritu dira gehienbat. Infantilek bigarren urtez eskuratu dute garaikurrik desiratuena Gabonetako txapelketa honetan. PATXI RENOBALÉS

B Blogteka info

'Eklipsea' da ipuina: Hitzekin jolastu nahi?

Irakurle guztien artean ipuin bat osatzea du helburu blog honek. Guk istorio honen sarrera proposatu dugu lehen esaldiarekin, eta zuek, jarraipena emanez ipuina aberastea lortu nahi dugu. Horretarako, blogaren iritzien atalean idatz dezakezu, aurreko mezuari segida emanez. Parte-hartzea ahalik eta zabalena izan dadin, idazle bakoitzak gehienez ere lau esaldi idaztea eskatzen dugu. Ipuin guztietan bezala, sarrera bat, korapilo bat eta bukaera bat izatea nahi dugu. Denon istorio honetara hartzen duen heinean, papereko edizioan ere argitaratuko dugu. Beraz, anima zaituzte, eta parte-hartu hitzekin jolasten.

«Eklipsea. Han ageri zen, esan

zuten bezala, eta une hori gogoangarriago egin zen, nola ahaztuko nuen? Eguna gau bilakatu zen. Oinez jarraitu eta erori egin nintzen. Odola eskuetan eta iragana lausaturik nuen. Nola ahaztuko nuen galdera bakarrik gogoratzen nuen. Baina nola ahaztu? Zer ahaztu? Nor ahaztu? Dena ahaztu nuen, ahaztu hitza izan ezik.

Odolaren azpian azal iletsua sentitu nuen mingain lantzarekin. Eklipsearen argi apala handiegia zen gaueko lau hankatoko izaki honentzat eta nora jo ez nekien...

Eklipse amaieraren argiak ordea, bidea erakutsi zidan. Ahaztu nuen ahaztu ezinezko zeraren bila abiatu nintzen lau hanken gainean saltoka. Odolak odol egarria piztu zidan eta eklipse amaieraren etxola bat erakutsi zidan. Hori ote zen ahaztu nuena, gosea?



Gosea nintzen? Baina nola asetu nire gosea? Hori ez nuen gogoratzen, baina etxola horretara bideratzen ninduen nire senak. Zertara ordea? Beldurra sentitzen nuen...».

Hitzekin jolasean

<http://www.tolosaldeko-hitza.info/blogak/hitzekin/>



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendari: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoetalea: 687 410 022. anoetaldea@tolosaldeko hitza.info.
Ibarralde: 687 410 032. ibarralde@tolosaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO HEDABIDEAK

eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Ametzeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Deialdiak

■ **Tolosa.** Alpino Uzturre elkarteak jakinarazi nahi du, astelehenetan eta asteazkenetan 19:30etatik 21:00etara, 2008 urteko mendi federatu txartela ateratzeko aukera izango dela.

■ **Tolosa.** Mikel Urdangarinen kontzertua izango da Leidor aretoan ostiralean, 20:30ean *Anek idatzi dit zutaz* diskoa aurkezteko. Sarrerak salgai daude Servikutxan, Kutxaneten edota www.kutxa.net helbidean, 10 eurotan.

■ **Tolosa.** Sahararrei laguntzeko janari bilketa abian da eskualdean. Arroza, dilistik, hegaluzea, azukrea eta konpresak utzi behar dira aurtengo kanpainan. Maxi Eroski, Eroski Center edota BM supermerkatuetan eta eskualdeko udal txetxe eta Kultur Etxetan utzi daitezke.

Erakusketa

■ **Tolosa.** Charo Berra Erroren *Zuhaitza: bizia eta kolorea* pintura erakusketa dago ikusgai Aranburu jauregian.

■ **Tolosa.** Jabier Villarreal Armeniarren *Paralelo 42* argazki montajeen erakusketa Aranburu jauregian.

■ **Alegia.** Ana Jesus Ansorena tolosarraren erakusketa Jubilatuen tabernan. Hilabete osoan zehar izango da bere zeramika lanak ikusteko aukera asteartetik igandera bitarte.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Olarreaga, J. Korreo kalea, 2. 943 67 01 28.

■ **Arribe.** Garmendia, A. Kale Nagusia, 112.

■ **Irurtzun.** Gastearena, M. Amaya kalea, 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanen eta iritzien erantzunik.



Iparraldeko txokoak ezagutuz

TOLOSA ● Alpino Uzturre elkarteak irteera antolatu du igande honeterako. Bidartetik abiatuko dira, eta kostaldetik jarraituko dute Miarriztera iritsi arte. Han, Angeluko hondartza zeharkatuko dute, eta Xibertako basoak eta lakua ere ezagutzeko aukera izango dute. Ondoren, Baiona ezagutu-

ko dute bertako kaleetatik paseatuz eta Errobi ibaiaren ertzetik joanez. Azkenik, jomugara iritsiko dira, hau da, Uztaritzera. Irteeran parte hartu nahi duenak elkartearen edo 943 652789 zenbakian eman ahalko du izena. Bazkideek 11 eta gainerakoek 13 euro ordaindu beharko dute. HITZA

A Agurrak



Zorionak!

Ekain (Villabona). Gaur 3 urte. Zorionak Amezketako familiaren partetik.

agurrak

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitza: Udaletxeko bulegoa

agurrak

txokoa **h**

Haur ikuskizunerako
5 sarrera pare
zozketan, deitu eta eskuratu

Xurdin

urtarrilak 12, larunbata • 17:00etan
Tolosako Leidorren



kantaldirako
5 sarrera pare
zozketan, deitu eta eskuratu

Mikel Urdangarin

ostirala, urtarrilak 11 • 20:30ean
Tolosako Leidorren

